

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

304

IRAGARKIA, 2026ko urtarrilaren 12koa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Arabako lurralde-ordezkararena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita Vitoria-Gasteiz eta Arratzua-Ubarrundiako udal-mugarteetan (Araba) dagoen Piparra Solar eguzki-instalazio fotovoltaiorako (4,945 MVA) eta hari lotutako azpiegituretarako aurretiko administrazio-baimenaren eskaera.

48/2020 Dekretuaren 10. artikuluan (48/2020 Dekretua, martxoaren 31koa, zeinaren bidez arautzen baitira energia elektrikoa ekoizteko, garraiatzeko eta banatzeko instalazioen administrazio-baimenaren prozedurak) eta 24/2013 Legearen 53.1 artikuluan (24/2013 Legea, abenduaren 26koa, Sektore Elektrikoari buruzkoa) ezarritako ondorioetarako, jendaurrean jartzen da Piparra Solar instalazio fotovoltaiokoaren eta hari lotutako azpiegituren proiektua.

Espedientea: 01-GE-Y-2024-00056.

- Eskatzailea: Ventaja Solar 13 SM (IFKa: B01735463).
- Eskaeraren helburua: aurretiazko administrazio-baimena.
- Xedea: energia elektrikoa ekoiztea teknologia fotovoltaiokoaren bidez, salmentarako.
- Piparra Solar proiektua:
 - 9.438 modulu, 575 Wp-ekoak.
 - 23 inbertsore fotovoltaiako, 215 kVA-koak. Guztira, 4,945 MVA-ko potentzia du.
 - Transformadorea duten 2 transformazio-zentro, bakoitza 2.500 kVA-koa.
 - Ebakuazio-linea: 20 kV-eko lurpekoa da eta 119 m ditu, eta transformazio-zentro batetik interkonexio-puntutik gertu dagoen sekzionamendu-zentroraino doa.
- Eragindako udal-mugarteak: Vitoria-Gasteiz: 39. poligonoa, 45. partzela; Arratzua-Ubarrundia: 2. poligonoa, 122-1, 123-1, 376-1, 123-2, 127-1 eta 90010-9 partzelak.
- Ebakuazio-puntua: Gamarra transformazio-azpiestazioko (30 kV) 30 kV-eko 65 - Gamarra-Villareal I linea.
- Eguzki-instalazioak hartzen duen azalera: 7 ha.
- Aurrekontua (BEZik gabe): 3.307.855,20 euro.

Proiektu honi ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua egin zitzaion.

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Arabako Lurralde Ordezkaritza da espediente hau izapidetzeko eta ebazteko organo eskuduna, bat etorri abenduaren 3ko 410/2024 Dekretuaren (Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena) 20. artikuluan xedatutakoarekin.

Hori guztia argitaratzen da interesdunek eta, oro har, herritarrek proiektuaren gaineko dokumentazioa azter dezaten 20 egun balioduneko epean, iragarki hau argitaratzen den egunetik aurrera, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Arabako Lurralde Ordezkaritzan (Samaniego kalea 2, Vitoria-Gasteiz) eta Interneteko www.euskadi.eus webgunean (Energia eta meategiak/Energia ataleko proiektuaren jendaurreko informazioan: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurларitza/energia-meategiak/hasiera/>), eta egokitzen jotzen dituzten alegazioak aurkeztu ditzaten.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko urtarrilaren 12a.

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Arabako lurralde-ordezkaria,
JAVIER AIZPURU OCHOA DE ERIBE.